
Gorputza desagertzen denean
Mugatxoan
Donostia. Otsaila 2012



Tor Lindstrad

Entrecuerpos – Mugatxoan
Arte eta Kultur Elkartea
www.mugatxoan.org

Gorputza desagertzen denean
Mugatxoan
Donostia. Otsaila 2012

Mugatxoan-en helburu nagusia performancearekin eta honen eratorriekin loturiko praktika kritiko eta esperimentalak sustatzea da, eta horiek tokiko naiz nazioarteko testuinguru batean txertatzea.

Mugatxoan-ek bere jarduna gailuen ezagutzan eta objektu inmaterialen eta ikuslearen artean sortzen diren harremanetan kokatzen du, bitartekotzat inmaterialtasuna duten gorputzaren diskurtsoetan, eta bere baitan hartzen ditu ekintzen eraldaketa gisa azaltzen diren lanak edo egoera iragankor baten bidezko esanahi ekoizpena.

Gorputza desagertzen denean, otsailaren 20tik 26ra burutuko den programak, bi lan-ardatz nagusi ditu: auto-erreflexibitatea eta soinua desmaterializaziorako bitarteko gisa. Beraz, honakoa proposatzen dizuegu:

–otsailak 20-22

Auto-erreflexibitate eta auto-kontzientzia tailerra
Peio Agirrerekin.

–otsailak 24-26

Emisión 0. Irrati programa hainbat gonbidaturekin.
Performanceak, konferentziak, hizketaldiak eta esku-hartzeak izango dira.

Zer da auto-erreflexioa? Zer da kritika eta auto-kritika? Nola izan daiteke bat kontziente eta auto-kontziente aldi berean? Gai horien inguruan jardungo da Peio Agirrek emango duen tailerra.

Deialdi publikoa zabalik dago otsailaren 3ra arte, egun horretan amaituko baita izenemate epea.

Tailerraz gain, deialdia luzatu nahi dizuegu gainontzeko egune-tan jarduera-egitaraua osatzen duen Emisión 0 irrati-programara joateko.

Gorputza desagertzen denean. Nola egon egon gabe? Soinua desmaterializaziorako bitarteko gisa. Zuzeneko irratsaio bat proposatzen dugu, praktikaren eta partekatutako ezagutza-prozesuen bitartez edukiak sortzeko duen gaitasunagatik, eta batik bat oraina edo beste orain bat sortzeko duen gaitasunagatik. Esperimentazio honek ez du jorratzen irratia medio bazala, baizik eta performanciel-a oinarritzen den lekua bezala, modu horretan, zeinuaren onespina traslazioan eta formatu honetara egokitza-penean bilatuz. Formatu moldagarriez osatutako saioa izango da, gonbidatuek aktibatua: Víctor Iriarte, Manuel Cirauqui, Loreto Martínez Troncoso, Lore Gablier, Sandra Cuesta, Inazio Escudero, Kroot Juurak, Espe López eta Txubio Fdz. de Jáuregui.

Cuaderno 0 argitalpena ere aurkeztuko dugu, lan prozesuen ele-mentu eta zatiak biraktibatze eta gaien arteko gurutzaketa praktikatzeko bitarteko gisa. Marrazkiek, irudiek eta norabide anitzeko idazkuntza bidezko testuek erreferentziak eta pentsa-menduzko erlazioak lekualdatzeko orduan berehalakotasunera-ko aukera ematen digute. Interesatzen zaigun hura markatzeko aukera, modu horretan, proiektuaren joanean gurutzatzen diren edukiak aktibatuz.

Zuen izenemateen zain geratzen gara.

Ion Munduate – Blanca Calvo

Tailerra

Auto-erreflexibitatea / auto-kontzientzia

Peio Aguirre

Donostia . Otsailaren 20tik 26ra, 2012

Zer da auto-erreflexioa? Zer, kritika eta autokritika? Nola izan liteke bat kontziente eta auto-kontziente aldi berean? Auto-erreflexibitatea modernotasunari lotutako alerta egoera bat da, non arte obrak bere burua pentsatzen duen autokritikaren bitartez. Auto-kontzientzia adimenak, edo izaki indibidualok, kanpoko munduarekin edo inguratzen gaituzten objektu eta testuinguruekin dugun harremana da. Auto-erreflexibitatea, esate baterako, Jean-Luc Godarden filmetan agertzen da, forma abangoardistekiko zordun eta Bertolt Brechten oinordeko zuzena delarik. Azken hau, «antzerki-epikoaren» eta aldentze-efektuaren sortzaile izan zen, hau da, eszenan (edo pantailan) irudikatuarekiko etcetera edo jarrera kritikoa hartzera bultzatzen zuen ikuslea.

Antzerki-modu tradizionalak ikuslea eszenategi barruan bereganatzea bazuten helburu, munduaren egiazkotasuna eta kontatzen den horrena ontzat emanez, estilo auto-erreflexiboak bilatzen zuena (eta duena) da etengabe ikusleari gogoraraztea artearen izaera eraikitzaile eta irudimenezkoa, baita bere izaera historikoa ere. Tailer hau euren lana distantzia batetik begiratu nahi duten diziplina guztietako artistei zuzendurik dago, une batez obratik eta testutik bereizi daitezten, eta obraren izaera eta testua gerora garrantzizko eraldaketak egiteko aukera emango dien perspektiba batetik aztertu dezaten. Une batez, sortzaileak beraiek euren lanaren kritikarien paperean jar daitezten da helburua. Kanporatze hori funtsezkoa da ez soilik lana ebaluatu eta aurkezteko, baita jendaurrean azalpenak emateko ere, statements-ak idatzi edo ohar biografiko bat idazteko. Testuen irakurketa, filmen proiektzioa eta taldeko eztabaida erabiliz, tailerrak gai hauei buruzko

Peio Aguirre

gogoeta kolektiboa sustatuko du. Izaera teoriko-praktikoa izango du, hau da, lerro erreflexibo batzuk ezarriko dira eta parte-hartzeko borondatea, eztabaidan eta ezagutza kolektiboan ekarpenak egitea sustatuko da.

Tailerra hiru egunetan zehar egingo da goiz eta arratsaldez.

Peio Aguirre

Arte kritikaria, komisario independentea eta editorea.

Donostian bizi da eta bertan lan egiten du.

2000 eta 2005 urteen artean D.A.E. Donostiako Arte Ekinbideak-eko zuzendari-kide izan zen. Honako erakusketa hauen komisario izan da: *Imágenes del otro lado*, CAAM, Las Palmas de Gran Canaria (2007), *Arqueologías del futuro*, Rekalde Aretoa, Bilbo (2007) eta *Asier Mendizabal*, MACBA, Bartzelona (2008). Nazioarteko hainbat aldizkaritan argitaratu izan ditu artikulatuak, besteak beste, *Afterall*, *A Prior Magazine*, *Flash Art*, *ExitExpress* eta *e-flux journal*, eta artista garaikideei buruzko hainbat testu monografikoren egilea da. *Crítica y meta-comentario* izeneko bere blogean idatzi ohi du. <http://peioaguirre.blogspot.com>.

Deialdia

- Datak: 2012ko otsailaren 20tik 26ra (Tailerra eta *Emisión 0*).
- Ordutegia: Astelehenetik larunbatera, jardunaldi trinkoak izango dira, goizez eta arratsaldez. Nahitaezkoa da aste osoko parte-hartzea.
- Lekua: Donostiako San Telmo Museoa, Donostia – San Sebastián.
- Parte-hartzaileak: ikusizko arteak, performancea edo dantza-praktikekin lotutako pertsonak.
- Parte-hartzaile kopurua: 15.
- Izen-emateko epea: 2012ko urtarrilak 17 –otsailak 3, biak barne.
- Dokumentazioa: NAN/Pasaportearen fotokopia, Motibazio gutuna, Biografia eta egindako lanen dosierra.
- Eskaerak aurkezteko: info@mugatxoan.org.
- Hautaketa: Blanca Calvo, Ion Munduate, Peio Aguirre.
- Tailerra: Peio Aguirre.
- Erabakia: otsailaren 7an jakinaraziko zaie hautatuei eta zerrenda www.arteleku.net webgunean argitaratuko da.
- Matrikula: 50 €.
- Laguntzak: Donostiatik kanpo bizi direnei ostatu emateaz kargu egingo da *Mugatxoan*. Ostata ikasle erresidentziatan izango da partekatutako logeletan eta gosaria barne izango du, otsailaren 19tik 26ra.
- Informazio gehiago: info@mugatxoan.org

Mugatxoan proiektu elkartua da,
Donostiako Arteleku-Tabakalera eta Portoko Serralves Fundazioarekin koproduzioan.
Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamendua eta San Telmo Museoen elkar-lanarekin.

